

## AURKABIDEAK

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka honako errekurtsok jar ditzakezue:

1. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari. Horretarako hilabeteko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errekurtsu hau jarri zenuen egunetik gehienez hilabeteko epean ebazpen adierazirik jaso ezean, ezetsizat joko da. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango duzu Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegi egokian.

2. Berraztertze errekurtsorik jarri nahi ez baduzu, zuzenean jar dezakezu administrazioarekiko auzi-errekurtsua administrazioarekiko auzien epaitegi egokian. Horretarako hilabete biko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

3. Hala ere, beste edozein aurkabide erabil dezakezu, egoki baderitzozu.

Bilbon, 2015eko otsailaren 20an.—Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkaria, Eduardo Maiz Olazabalaga

(II-1326)

**Administrazioaren agindua Ana Isabel Collado Jiménez andrearentzat, Hirigintza Saileko Obren Ikuskaritzako Sekzioarekin harremanetan jartzeko, Enkarnazio kaleko 11ko 6 T esk. 01eko etxebizitzan trastelekua lehengoratu dela ikuskatzeko (espedientea: 2012-022407/111078000156).**

Interesdunari ezin izan zaio jakinarazpena egin. Hori dela-eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 artikulua onorioetarako, Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak 2014ko abenduaren 3an hartutako Erabakia argitaratzen da. Aipatutako Erabakiak honela dio:

«Bat: Ana Isabel Collado Jiménez andreari agintzea hamar (10) eguneko epean harremanetan jartzeko Hirigintza Saileko Obren Ikuskaritza Sekzioarekin (telefonoa: 944203122-944204826; ordutegia: 08:00-10:00), Enkarnazio kaleko 11ko 11. T 6 eskuineko 01eko trastelekuaren erabilera lehengoratu dela ikuskatzeko; eta hori legezko egoera berriro jartzeko espedientean azaldutakoarekin bat etorrira.

Bi: Agindu hau bete ezean, 300 euroko hertsatzeko isuna jarri ahal zaiola jakinaraztea; gainera, zehapen-espedientea zabalduko zaio hirigintzako ikuskapena egiteari arrazoi barik uko egiten badio, ikuskapena egiteko ahalmenari trabak jartzeko delako eta, hortaz, hirigintza arloko arau-haustea, hala ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurrari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 217.5 artikulua.»

Bilbon, 2015eko otsailaren 16an.—Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkaria, Eduardo Maiz Olazabalaga

(II-1302)

**Balmasedako Udala**

**Enpresa eta inbertsio proiektuak sortu eta martxan jartzeko diru laguntzen deialdiaren prozedura arautzeko oinarriak 2015.**

Alkateak 2015eko otsailaren 20an emandako 112/15 zenbakiko Dekretuaren bidez, 2015ean zehar enplegua sustatzeko eta Enpresa eta Inbertsio proiektuak sortu eta abian jartzeko diru-laguntzen deialdiari buruzko prozeduraren oinarri arau-emaileak onetsi zituen Balmasedako Udalak; hona hemen oinarriak:

## MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, podrá utilizar los recursos que se expresan a continuación:

1. Si así lo desea, podrá interponer el recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente a aquél en que haya recibido esta notificación.

En el supuesto de que utilice este recurso, y no se resuelva expresamente en el plazo máximo de un mes, a contar desde la fecha de su interposición, se entenderá desestimado, en cuyo caso podrá interponer el recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Bilbao que corresponda.

2. Si no desea interponer el recurso de reposición, podrá utilizar directamente el recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo que corresponda, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha en que haya recibido la presente notificación.

3. De todas formas podrá utilizar cualesquiera otros medios de impugnación si lo estima oportuno.

En Bilbao, a 20 de febrero de 2015.—El Concejal Delegado del Área de Urbanismo, Eduardo Maiz Olazabalaga

(II-1326)

**Requerimiento dirigido a Ana Isabel Collado Jiménez, en orden a que se ponga en contacto con la Sección de Inspección de Obras de Urbanismo, para comprobar la restitución de uso de trastero en la c/ Encarnación, número 11, 6.º T Dr. 01 (Expediente 2012-022407/111078000156).**

Por no haberse podido cumplimentar la notificación correspondiente, procede publicar, a los efectos del artículo 59.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la Resolución Municipal adoptada por el Concejal Delegado del Área de Urbanismo, con fecha 3 de diciembre de 2014, cuyo contenido literal es el siguiente:

«Primero: Requerir a doña Ana Isabel Collado Jiménez para que, en el plazo de diez (10) días, se ponga en contacto con la Inspección de Obras del Área de Urbanismo (Teléfono: 944 203 122 - 944 204 826. Horario: 8:00 h a 10:00 h), a fin de que pueda llevar a cabo la inspección del inmueble sito en la c/ Encarnación, n.º 11, T6 dcha. 01, en orden a comprobar la restitución del uso de trastero, en los términos requeridos en el presente expediente de restauración de la legalidad.

Segundo: Advertirle de que se le podrá imponer una multa coercitiva de 300 euros, en caso de desobediencia a este requerimiento, sin perjuicio de la incoación del oportuno expediente sancionador, toda vez que la negativa no fundada a colaborar con la inspección urbanística constituiría obstaculización del ejercicio de la potestad de inspección a los efectos de su consideración como infracción, de conformidad con el artículo 217.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

En Bilbao, a 16 de febrero de 2015.—El Concejal Delegado del Área de Urbanismo, Eduardo Maiz Olazabalaga

(II-1302)

**Ayuntamiento de Balmaseda**

**Bases reguladoras del procedimiento de la convocatoria de subvenciones para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales e inversión 2015.**

El Ayuntamiento de Balmaseda, mediante Decreto de Alcaldía número 112/15, de fecha 20 de febrero, aprobó las bases reguladoras para la concesión de subvenciones de Promoción de Empleo, para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales durante el año 2015, cuyo contenido es el siguiente:

**ENPRESA ETA INBERTSIO PROIEKTUAK SORTU  
ETA MARTXAN JARTZEKO DIRU LAGUNTZEN  
DEIALDIAREN PROZEDURA  
ARAUTZEKO OINARRIAK. 2015**

**BASES REGULADORAS DEL PROCEDIMIENTO  
DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES  
PARA LA CREACIÓN Y PUESTA EN MARCHA  
DE PROYECTOS EMPRESARIALES E INVERSIÓN 2015**

**1. Helburua**

Honako oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko laguntzen emakida arautzea 2014ko abenduaren 27tik 2015eko abenduaren 31ra bitartean, enpresa- eta inbertsio-proiektuak sortu eta abian jartzeagatiko gastuak diruz laguntzeko. Proiektuok langabezian dauden eta bigarren oinarrian ezartzen diren eskakizunak betetzen dituzten ekintzaileek sustatu behar dituzte.

**2. Pertsona ekintzaileen eskakizunak**

Enpresa-proiektu berrien ekintzaileek ondoko eskakizunak bete beharko dituzte:

- Enpresa-proiektuaren pertsona sustatzaileetako batek, behintzat, Balmasedan egon behar du erroldatuta, 2015eko urtarrilaren 1.a baino lehen. Eta langabezian eta Lanbiden enplegu eskatzaile egon beharko du, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman baino hilabete lehenago, behintzat.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifa-multzo berari atxikitako jarduerarik burutu ez izana, jarduera berriari alta ematen den datan baino urte eta erdi lehenago, ez eskatzaileak, ez eskatzailearekiko bigarren mailarainoko odolkidetasuna duten pertsonak edo bizikidetzako unitatea osatzen duten pertsonak, belaunaldi-txandako kasuetan izan ezean.

**3. Onuradunak**

Edozein ekimenek jaso ahal izango ditu enpresa-proiektuak abian jartzeko laguntzen onurak, enpresaren eraketak 2014ko abenduaren 27tik 2015eko abenduaren 31ra hartzen duen eite juridikoa zeinahi dela ere, baldin eta bigarren oinarrian ezarritako eskakizunak betetzen badira.

**4. Laguntzen zenbatekoa**

- 3.000 eurorainoko laguntza ezarri da, itzuli beharrik gabeko laguntza, inbertsioaren %75eko gehieneko zenbatekoarekin, enpresak martxan jartzeko gastuak eta inbertsio-gastuak diruz laguntzeko.

**Gastu lagungarriak**

Honako hauek hartuko dira gastu lagungarritzat: negozioa kokatzen deneko lokalaren errentamendua; hornidurak (argindarra, ura, telefonoa); aseguru-sariak; garbiketara eta mantentze-lana; bulego-materiala; profesionalen zerbitzu askeak; publicitatea eta sustapena; Gizarte Segurantzako kotizazioak norberaren konturako langileen erregimen berezian eta gertakizun arruntengatiko kotizazioak erregimen orokorrean, gehienez, enpresak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartzen duenetik urtebetetera sortutakoak.

**Inbertsio lagungarriak**

Inbertsio gisa, ibilgetua osatzen duten ondoko elementuak lagundu ahal izango dira, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraiki:

**2.0.6. Aplikazio informatikoak.**

2.1.1. Eraikuntzak (higiezinaren erosteta eta eraikuntza izan ezik).

**2.1.2. Instalazio teknikoak.****2.1.3. Makinak.****2.1.4. Tresnak.****2.1.5. Beste instalazio batzuk.****2.1.6. Altzariak.****2.1.7. Informazio-prozesuetarako ekipoa.**

2.1.8. Garraio-elementuak (industriakotzat sailkatutako ibilgailuentzat baino ez).

**1. Objeto**

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de ayudas a fondo perdido para subvencionar los gastos derivados de la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales e inversión, desde el 27 de diciembre de 2014 hasta el 31 de diciembre del 2015, promovidos por personas promotoras en situación de desempleo que cumplan los requisitos establecidos en la base 2.

**2. Requisitos de las personas emprendedoras**

Las personas promotoras de nuevos proyectos empresariales deben cumplir los siguientes requisitos:

- Al menos una de las personas promotoras del proyecto empresarial debe estar empadronada en Balmaseda con anterioridad al 1 de enero de 2015. Y debe estar desempleada e inscrita como demandante de empleo en Lanbide al menos un mes antes de la fecha de Alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- No haber ejercido una actividad del mismo grupo de las tarifas del Impuesto de Actividades Económicas en el año y medio inmediatamente anterior a la fecha de Alta en la actividad, tanto la persona solicitante como personas con una relación de consanguinidad hasta el segundo grado o que formen parte de misma unidad convivencial, salvo que se trate de supuestos de relevo generacional.

**3. Beneficiarios**

Podrá acceder a los beneficios de ayudas a la puesta en marcha de proyectos empresariales cualquier iniciativa, independientemente de la forma jurídica que adopte la constitución de la empresa desde el 27 de diciembre de 2014 hasta el 31 de diciembre del 2015, siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en la base 2.

**4. Cuantía de la ayuda**

- Se establece una ayuda a fondo perdido de hasta 3.000 euros, con un máximo del 75% de la inversión, para subvencionar los gastos de puesta en marcha e Inversión de empresas.

**Gastos subvencionables**

Tendrán la consideración de gastos subvencionables: el arrendamiento del local donde se ubique el negocio; suministros (luz, agua, teléfono); primas de seguros; limpieza y mantenimiento; material de oficina; servicios profesionales independientes; publicidad y promoción; cotizaciones a la seguridad social en el régimen especial de autónomos, así como por contingencias comunes en el régimen general, generados durante un período máximo de 1 año a partir del alta en Actividades Económicas de la Empresa.

**Inversiones subvencionables**

Como inversión se podrán incluir los siguientes elementos de inmovilizado, de acuerdo con el Plan General Contable:

**2.0.6. Aplicaciones Informáticas.**

2.1.1. Construcciones (excluidas la adquisición y la construcción de inmuebles).

**2.1.2. Instalaciones Técnicas.****2.1.3. Maquinaria.****2.1.4. Utillaje.****2.1.5. Otras Instalaciones.****2.1.6. Mobiliario.****2.1.7. Equipos para procesos de información.**

2.1.8. Elementos de transporte (solo para vehículos catalogados como industriales).

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aintzat hartuko da inbertsioak erosteko balioa, BEZa kenduta. Elementu berrien nahiz erabilitakoen inbertsioztat hauexek hartuko dira:

- Enpresaren xedea osatzen duen jarduerari zuzenean lotutakoak.
- Ezin zaie hirugarrenei laga, kontraprestazio batez edo kontraprestaziorik gabe.
- Enpresa eskatzaileak berak ezin ditu fabrikatu.

Inbertsio horiek 2014ko abenduaren 27tik 2015eko abenduaren 31ra bitartean egin behar izan dira.

## 5. Bestelako laguntza batzuekin batera egotea

Honako deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzekin, xede berdinekoak izanda. Salbuespena: faktura berbera ezin izango da aurkeztu Balmasedako Udalak ematen dituen beste laguntza batzuen deialdi batean.

Programa honetan ezarritako laguntzek edo diru-laguntzek 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006 Araudian (EB) xedatutakoa beteko dute (2006ko abenduaren 28an argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean), Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren 87. eta 88. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari dagokionez, bai eta gero egiten diren aldaketak ere. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa jakin bati ematen zaion de minimis laguntza osoa ezin izango da izan 200.000 euro baino gehiagokoa, 3 zerga ekitalditan zehar. Muga hori de minimis laguntza modua edo lortu nahi den helburua edozein dela ere aplikatuko da. Muga hori gainditzen bada, programa hau kontuan hartuta emandako laguntza gutxitu egingo da emandako gehiegizko kopuru berean.

## 6. Aurrekontuko baliabideak, eskatzeko epea eta lehentasuna

Honako deialdi honetan araututako diru-laguntzak 2015 931 47101 Tokiko Ekonomia Dinamizatzeko Plana deritzon partidaren pentzura finantzatuko dira.

Eskaerak aurkezteko epea honako oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengoan hasiko da eta 2015 931 47101 Tokiko Ekonomia Dinamizatzeko Plana deritzon aurrekontu-sailean zuzkitutako 25.000,00 euroko zenbateko zabalgarria agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko epea 2015eko abenduaren 30ean amaituko da.

Diru-laguntzen eskaerak erregistratutako hurrenkera berean ebaziko dira, betiere behar bezala bete badira eta espediente osoa badago. Hori dela eta, sarrera zenbakia ez da behin betikotzat joko, hari eta agiri guztiak aurkeztu direla egiaztatu arte, bai eta aurrekontuetan ondore horretarako jaso den aurrekontu-kredituaren mugara heldu arte.

## 7. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak eta aginduzko agiriak Balmasedako Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4 artikulua araututakoa aplikatzeko modukoa izango da.

Eskaera aurkezteak badakar, halaberrez, oinarri hauen edukia onartzea.

## 8. Derrigorrezko dokumentazioa

Laguntzen eskabideak deialdi honen eranskinetan jasotako eskaera-eredu normalizatuan aurkeztuko dira, eta enpresaren edo erakundearen ordezkarietan jarduten duen pertsonak sinatuko du. Gainera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

Para el cálculo de la subvención se tendrá en cuenta el valor de adquisición de las inversiones, excluido el IVA. Se tratará de inversiones en elementos nuevos, o bien usados:

- Que estén directamente relacionadas con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.
- Que no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.
- Que no hayan sido fabricados por la propia empresa solicitante.

Dichas inversiones deberán haberse realizado entre el período comprendido entre el desde el 27 de diciembre de 2014 hasta el 31 de diciembre del 2015.

## 5. Concurrencia con otras ayudas

Las ayudas reguladas en la presente convocatoria serán compatibles con otras ayudas provenientes de organismos públicos o privados y que subvencionen los mismos conceptos. Excepción: La misma factura no podrá presentarse a convocatorias de otras ayudas del Ayuntamiento de Balmaseda.

Las ayudas o subvenciones establecidas en el presente Programa respetarán lo dispuesto en el reglamento (CE) número 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea de 28 de diciembre de 2006 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de Mínimis, y cuantas modificaciones posteriores se produzcan. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de Mínimis concedida a una empresa determinada no será superior a 200.000 euros durante cualquier período de 3 ejercicios fiscales. Este límite se aplicará independientemente de la forma de la ayuda de mínimis o del objetivo perseguido. En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de este programa se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

## 6. Disponibilidad presupuestaria, plazo de solicitud y priorización

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la partida 2015 931 47101 Plan de Dinamización económica.

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y finalizará una vez agotado el crédito de 25.000,00 euros ampliables de la partida presupuestaria 2015 931 47101 Plan de Dinamización económica.

En todo caso el plazo de presentación de solicitudes finalizará el 30 de diciembre de 2015.

Se procederá a resolver las solicitudes de ayuda por riguroso orden de registro de la solicitud siempre que estén debidamente cumplimentadas y el expediente esté completo, el número de entrada no se considerará definitivo hasta que se compruebe que esta toda la documentación, y hasta el límite del crédito presupuestario consignado al efecto en los presupuestos.

## 7. Presentación de solicitudes

Las solicitudes, junto a la documentación preceptiva, deberán ser presentadas en el registro del Ayuntamiento de Balmaseda. Será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La presentación de la solicitud implicará la aceptación del contenido de estas bases.

## 8. Documentación preceptiva

Las peticiones de ayudas se presentarán en Modelo Normalizado de Solicitud recogido en el Anexo de esta convocatoria y firmado por la persona que ostente la representación de la empresa o entidad, junto con los siguientes documentos:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionalaren jatorrizkoa edo konpultsatutako kopia.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada: Informazio Fiskalaren Txartelaren jatorrizkoa edo konpultsatutako kopia, eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalarekin eta ordezkariaren egiaztagiriarekin batera. Eta enpresaren edo erakundearen eraketa-eskrituraren jatorrizkoa edo kopia eta geroko aldaketa guztiak, dago(z)kion erregistro(et)an inskribatuta dagoela egiaztatuta.

Berezko nortasun juridikorik ez daukaten sozietate zibilei dago kienez, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua ere aurkeztu beharko da.

c) Jatorrizko zinpeko aitortpena (eskaera-eredu normalizatua). Zinpeko aitortpen bakarra da eta ondoko guztiak kontuan hartzen ditu:

- Eskatzaileak honako laguntza-deialdi honen oinarriak eza gutzen eta onartzen dituelako zinpeko aitortpen jatorrizkoa.
- Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean, udalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan emandako alta eta bajei buruzko datuak eska ditzan enpresa eratzen denetik hiru urteko epearen barruan, Balmasedako Udalarai baimena ematen dion adierazpena.
- Diru-laguntza publikoak direla eta, eskatzailea itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren baten eraginpean ez dagoelako zinpeko aitortpen jatorrizkoa.
- Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo laguntza publikoak ezin jasotzea ekarri dion zigor- edo administrazio-zehapenen baten eraginpean ez dagoelako zinpeko adierazpena; era berean, diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ezarrita ez duelako zinpeko adierazpena, Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoari jarraiki, sexu-bereizkeriagatik jasandako debekuak ere aintzat hartuta.
- De minimis araua beteko delako zinpeko aitortpen jatorrizkoa, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (EB) Araudiak ezarritakoari jarraiki. Aipatutako araudia, De Minimis Laguntzen Itunaren gainekoa, 2006ko abenduaren 28ko Europako Batzordearen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 69/2001 araudia (EB) eta ondoko berrikuspenak ordeztu zituen.
- Jarduera berberaren xedea betetzeko, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatu edo erakunde horietatik jasotako laguntzei buruzko zinpeko aitortpen jatorrizkoa.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko inskripzio aldien txostena; horren bidez egiaztatu beharko da sustatzaile eskatzailea enplegua eskatzeko inskribatuta egon dela, behintzat jarduera hasi baino hilabete lehenago.

e) Lan-bizitza, jarduera hasi baino hilabete lehenago langabezian egon dela egiaztatzen duena.

h) Enpresak edo erakundeak Gizarte Segurantzaren alta eman duelako kopia.

i) Bazkide guztiak Gizarte Segurantzaren Araudian alta emanda daudela egiaztatzen duen kopia.

l) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak, enpresaren eta bertako bazkideen izenean.

g) Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Altaren kopia.

j) Bizkaiko Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak, enpresaren eta bertako bazkideen izenean.

k) Bizkaiko Foru Ogasunaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta baje epeei buruzko ziurtagiriak, enpresari eta bertako bazkideei dagozkienak.

a) En el supuesto de que el /la solicitante sea una persona física, original o copia compulsada del Documento Nacional de Identidad.

b) En el caso de personas jurídicas: Original o copia compulsada de la Tarjeta de Identificación Fiscal, junto con el Documento Nacional de Identidad y poderes de representación de la persona solicitante. Y original o copia compulsada de las escrituras de constitución de la empresa o entidad con sus posteriores modificaciones e inscripción en los registros que corresponda.

En el caso de las Sociedad Civiles sin personalidad jurídica propia, se incluirá el contrato privado sellado por Hacienda Foral.

c) Declaración jurada original (Modelo de Solicitud Normalizado), se trata de una declaración única que engloba:

- Declaración jurada original de conocer y aceptar las bases de la presente convocatoria de ayudas.
- Autorización al Ayuntamiento de Balmaseda la potestad de solicitar ante la Hacienda Foral de Bizkaia datos sobre altas y bajas en el Impuesto de Actividades Económicas durante un período de tres años a partir de la constitución de la empresa.
- Declaración jurada original de no hallarse incurso en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.
- Declaración jurada original de la entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Declaración jurada original del cumplimiento de la regla de Minimis, conforme a lo que establece el Reglamento (CE) número 1998/2006 de la Comisión Europea, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el BOCE de 28 de diciembre de 2006, del Tratado de la Ayudas de Minimis, que sustituye al reglamento (CE) 69/2001, así como sus posteriores revisiones.
- Declaración jurada original de las ayudas solicitadas o recibidas de otras instituciones públicas o privadas para la misma acción.

d) Informe de períodos de inscripción en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo que acredite la inscripción como demandante de empleo del promotor/a solicitante al menos un mes con anterioridad al inicio de la actividad.

e) Vida laboral que acredite estar en desempleo al menos un mes con anterioridad al inicio de la actividad.

h) Copia del alta de la empresa o entidad en la Seguridad Social.

i) Copia del alta en el Régimen Correspondiente de la Seguridad Social de todos los socios y socias.

l) Certificados actualizados a nombre de la empresa y de sus socios y socias que acrediten que se encuentran al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con Tesorería General de la Seguridad Social.

g) Copia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

j) Certificados actualizados a nombre de la empresa y de sus socios y socias que acrediten que se encuentran al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Bizkaia.

k) Certificados sobre períodos de altas y bajas en el Impuesto de Actividades Económicas de la empresa y de sus socios y socias Hacienda Foral de Bizkaia.

f) Eskualdeko Behargintzaren, Lanbideren enplegu zerbitzuen edo erakunde publiko batek edo Lanbideko sustatutako edo homologatutako beste edozein erakunderen tutorepeko bideragarritasun plana.

Diru-laguntzaren eskatzaileak ez du inolako zorrik eduki behar Balmasedako Udalarekin. Inguruabar hori Balmasedako Udalaren Kontu-hartzailetzak egiaztatuko du ofizioz.

## 9. Akatsen zuzenketa

Diru-laguntza eskaerak honako deialdi honetan ezarritako eskakizunak bete ezean edo aginduzko agiri guztiak aurkeztu ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikulua araututakoari jarraiki, interesdunari edo interesdunei eskatuko zaie 10 laneguneko epean akatsak zuzendu edo falta diren aginduzko agiriak aurkezteko. Horrez gain, berariaz ohartaraziko zaie eskatutakoa bete ezean, eskaerari uko egiten diotela ulertuko dela, eta beste izapide gehiago egin barik artxibatuko dela, arestian aipatutako legezko testuaren 42.1 artikulua xedatzen dituen ondorioak izanda.

Ez da eskabidea aurkeztuzat hartuko behar bezala beteta eta espedientea osorik egon arte (7. eta 8. artikulua).

## 10. Eskaeren azterketa eta ebaluazioa

Prozedura bideratu eta izapideak egiteko organo eskumenduna ondokoek osatutako batzordea izango da: Balmasedako Udaleko Ekonomia Sustapenerako zinegotzia eta lan-teknikaria.

Eskaerak ebazteko organo eskumenduna Alkatea izango da.

## 11. Laguntzen emakidaren ebazpena

Balmasedako Udalak eskabideak ebazteko ditu Udalaren Sarrera Erregistroan jasotzen diren hurrenkera berean, betiere eskatutako agiri guztiak aurkeztu badira. Agiri osagarriak aurkezteko eskaera eginez gero, eskaera bete deneko data hartuko da sarrera-datatzat.

Alkatetzaren ebazpenez hartutako erabakiek laguntzaren emakida edo ukapena adierazi beharko dute.

Eskaerak ebazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eskaera osorik eta behar bezala aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Hala ere, epea amaituta ebazpenik eman ezean, eskatzaileak ulertu beharko du eskaera ez dela onartu.

## 12. Erakunde onuradunen betebeharrak

12.1. Diru-laguntza hauen enpresa, profesional eta erakunde onuradunek ondoko betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretan, diru-laguntzaren emakida jakinarazten duen komunikazioa jasotzen den egunetik hamabost eguneko epera, erakunde onuradunek idatziz eta berariaz laguntzari uko egiten diotela adierazi ezean, diru-laguntza onartzen dutela ulertuko da.

b) Balmasedako Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jardueri men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organoko eskumendunek, naziokoek nahiz erkidegokoek, egin ditzaketan egiaztapen eta finantza-kontrolleko jarduerak guztiak, eta aipatutako jardueren barruan eskatzen zaizkien guztiak aurkeztu beharko dituzte.

c) Kontularitza-liburuak behar bezala beteta eta erregistroak eraz izapidetuta edukitzea, eta hala badagokio, gainerako agiriak eraz ikuskatuta edukitzea, onuradunari eskatu ahal zaion merkataritza eta arloko legeriak ezarritako baldintzei jarraiki. Halaber, laguntzen oinarri arau-emakideak ezartzen dituen kontularitzako egoerari eta berariazko erregistro guztiak aurkezteko moduan eduki beharko ditu, egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egoki gauza daitezzen bermatzearen.

f) Plan de viabilidad tutorizado por el Behargintza de la comarca, por los servicios de empleo de Lanbide o por cualquier entidad promovida u homologada por una institución Pública o por Lanbide.

El solicitante de la subvención deberá de estar libre de deudas con el Ayuntamiento de Balmaseda, comprobación que se realizara de oficio por los servicios de intervención del propio ayuntamiento.

## 9. Subsanación de deficiencias

Si la solicitud de subvención no reúne los requisitos exigidos en la presente convocatoria, o no se acompañara a la misma la documentación exigida, de conformidad con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se requerirá a los/as interesados/as para que, en un plazo de 10 días hábiles, subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose sin más trámites, con los efectos previstos en el artículo 42.1 del mismo texto legal.

No se considerará cursada la solicitud hasta que esta no se encuentre debidamente cumplimentada y el expediente esté completo (artículo 7 y 8).

## 10. Análisis y evaluación de las solicitudes

El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento será una Comisión compuesta por el Concejal de Dinamización Económica y la Técnica de Empleo del Ayuntamiento de Balmaseda.

El órgano competente para resolver será el Alcalde.

## 11. Resolución de concesión de la ayuda

El Ayuntamiento resolverá las solicitudes por riguroso orden de entrada en el Registro de Entrada Municipal siempre que se presente la documentación completa. Para el supuesto de que se deba requerir documentación complementaria se tomará como fecha de entrada la de la cumplimentación efectiva del requerimiento.

Las resoluciones adoptadas por Resolución de Alcaldía, se pronunciarán sobre la concesión o denegación.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de un mes contado desde la finalización del plazo de presentación de la solicitud completa. Si transcurrido dicho plazo no se hubiese dictado resolución, la persona solicitante podrá entender desestimada su solicitud.

## 12. Obligaciones de las entidades beneficiarias

12.1. Las empresas, profesionales y entidades beneficiarias de estas ayudas tendrán las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el Ayuntamiento de Balmaseda, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

c) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en su caso, en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las ayudas, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

d) Laguntza hauen xede diren jarduerak finantzatzeko duten beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu direla jakinaraztea Balmasedako Udalarari. Jakinarazpena idatziz egin beharko da, gehienez hamar eguneko epean beste laguntzaren berri izaten den egunetik zenbatzen hasita.

e) Diru-laguntza emateko aintzat hartu den zeinahi inguruar objektibo nahiz subjektibo aldatu dela jakinaraztea Balmasedako Udalarari.

f) Laguntza-eskaeraren nondik norakoak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko egokitzat jotzen diren argibideak edo agiri osagarriak eskuetaratzea Balmasedako Udalarari.

g) Hartutako funtsak itzultzea, xedatutakoak bete ezean, honako deialdi honek ezarritakoari jarraiki.

12.2. Enpresa alta emanda izatea gutxienez 12 hilabetean erazten den unetik, behintzat, enpresaren alde aurretiko itxiera arrazoi objektibo eta bidezkoen bidez frogatzen ez bada. Hala ere, Balmasedako Udaleko Ekonomia Sustapenerako zinegotziak eta lan-teknikariak osatutako batzordeak ebaluatu beharko dituzte arrazoiak.

### 13. Ikuskapena

Balmasedako Udalak egokitzat jotzen dituen ikuskapen eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu diruz lagundutako jardueri dagokienez. Horren haritik, udalak eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute enpresa edo erakunde onuradunek.

### 14. Diru laguntzaren ordainketa eta zuriketa

Balmaseda udalerrian sortzen diren enpresa edo negozio berriak sustatzeko laguntzaren ordainketa bi alditan egingo da:

- Lehen aldirian, zenbatekoaren erdia ordainduko da (1.500 euros), diru-laguntza eskatu eta hasierako onarpena izan ostean.
- Bigarren aldirian, beste erdia ordainduko da (1.500 euros), jarduera hasten denetik urtebetera.

Bigarren ordainketa jasotzeko, ondoko agiri guztiak aurkeztu beharko dira jarduera hasi denetik urtebetera:

- a) Jarduerak alta emanda segitzen duelako jatorrizko agiria edo konpultsatutako kopia (JEZen alta eta baje egiaztagiria).
- b) Enpresak sortzeagatik diru-laguntzaren eskatzaileak edo eskatzaileek Gizarte Segurantzako norberaren konturako langileen erregimen berezian ordaindu dutelako jatorrizko agiri guztiak edo konpultsatutako kopiak.
- c) Diru-laguntzaren xede diren gastu eta inbertsioen jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopiak. Horien guztizko zenbatekoak, gutxienez, 3.000 eurokoa izan behar du, zergak kontuan hartu gabe. Eta faktura horien ordainagiriak.

JEZen alta hartzen denetik 15 hilabete igarota, inolako egiaztagiririk aurkezten ez bada, hasieran emandako zenbatekoa osorik itzultzeko eskatuko da.

Eskatzaileak aitorten bateratuan jasotako daturen bat faltsutz gero, baliteke bere aurkako zehapen-prozedura hastea.

Enpresa-proiektuen sustatzaile batek diru-laguntzaren xede den 3.000 euroko zenbatekoa guztiz zuriu ez, baina eskaera onartu eta lehen ordainketa jasotako 1.500 euroko zenbatekoa baino gehiago zuriu bada, bigarren ordainketa hainbanatu egingo da sustatzaileak zuriu duen guztizkoaren gaineko ehunekoaren arabera.

Sustatzaileak 1.500 eurotik beherako zenbatekoa zuriu bada, diru-laguntzaren hasierako onarpenaren bidez jasotako 1.500 euroko zenbatekoa itzuli egin behar izango du sustatzaileak.

### 15. Diru laguntzen publizitatea

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 30. artikulua xedatutakoari jarraiki, diru-laguntzen eskaera aurkezteko epea amaitu eta eskabide guztiak ebatzi ondoren, Balmasedako Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda, deialdi honen 11. artikulua zehaztutakoaren arabera.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Balmaseda la obtención de otras ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades objeto de estas ayudas. Esta comunicación deberá efectuarse por escrito en el plazo de diez días desde que se conozca.

e) Comunicar al Ayuntamiento de Balmaseda la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

f) Facilitar al Ayuntamiento de Balmaseda, cuanta información o documentación complementaria se considere necesaria para la comprensión y evaluación de la solicitud de ayuda.

g) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos de incumplimiento conforme a lo que establece la presente convocatoria.

12.2. Mantener la empresa en alta un período mínimo de 12 meses desde su constitución, salvo que se justifique el cierre anticipado de la empresa por motivos objetivos y justificados a valorar por la Comisión compuesta por el Concejal de Dinamización Económica y la Técnica de Empleo del Ayuntamiento de Balmaseda.

### 13. Inspección

El Ayuntamiento de Balmaseda podrá realizar las inspecciones y comprobaciones que estime oportunas en relación a las acciones subvencionadas, debiendo aportar las empresas o entidades beneficiarias cuanta información complementaria se les solicite.

### 14. Abono y justificación de la subvención

En la ayuda concedida para la creación de nuevas empresas o negocios en el municipio de Balmaseda, el abono de la ayuda se realizará en dos pagos:

- Un primer pago del 50% (1.500 euros) tras la solicitud de la subvención y la aprobación inicial.
- Un segundo pago del 50% restante, (Máximo 1.500 euros), transcurrido 1 año desde el inicio de la actividad.

Para ello deberá entregarse transcurrido 1 año desde el inicio de la actividad la siguiente documentación:

- a) Original o copia compulsada de la justificación de la continuidad de Alta en la Actividad (certificado de altas y bajas del IAE).
- b) Original o copia compulsada de todos los recibos de pago del régimen de autónomos de la seguridad social del solicitante o solicitantes de la subvención por creación de empresas.
- c) Facturas originales o copias compulsadas de los gastos e inversiones objeto de subvención, de al menos 3.000 euros sin tener en cuenta los impuestos. Y documentos de pago de dichas facturas.

Una vez pasados 15 meses desde el alta en el IAE sin presentar justificación alguna se solicitará el reintegro de la cantidad inicialmente concedida.

Si el/la solicitante falseara alguno de los datos incluidos en la declaración conjunta, se podrá ver sometido al régimen sancionador precedente.

En el caso de que algún promotor de proyecto empresarial no justificara la totalidad de los 3.000 euros objeto de la subvención, pero se justifiquen más de los 1.500 euros realizados en el primer pago a la concesión de la solicitud, el segundo pago se prorrateará en función del porcentaje del total que se justifique por parte del promotor.

En el caso de que un promotor justifique una cantidad inferior a 1.500 euros, el promotor estará obligado a devolver los 1.500 euros adelantados en la concesión inicial de la subvención.

### 15. Publicidad de las subvenciones

Finalizado el plazo de presentación y una vez resueltas todas las solicitudes se publicará conforme al artículo 18 de Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y al artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Balmaseda una relación de las subvenciones concedidas conforme se detalla en el artículo 11 de esta convocatoria.

**16. Diru laguntza emateko baldintzen aldaketa**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, laguntza emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da, betiere honako oinarri hauek laguntzaren onuradun izateko ezartzen dituzten gutxieneko baldintzei eusten bazaie. Ondore horietarako, Balmasedako Udalak dagokion ebazpenaren aldaketa emango du, eta bertan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da.

**17. Laguntzen itzulketak**

Jasotako zenbatekoak itzuli eta diru-laguntza ordaindu den unetik aurrera sortutako legezko interesak ordaindu beharko dira erakunde onuradunek deialdi honetan, diru-laguntza esleitzeko ebazpenean eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; gainera, horrek ez dio kalterik egingo urratzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzen gauzaperari.

Diru-laguntza itzuli behar izateko inguruabarrak ondokoak dira:

- Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskakizunak betetzeke.
- Diru-laguntzaren xedea ez betetzea.
- Nahitaezko zuriaketa egiteko betebeharra ez betetzea.
- Diru-laguntzaren emakida dela eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduerari uko egitea edo haiek eragozteak.
- Hartutako diru-laguntzaren zenbatekoa garatutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea.

**18. Ordezko erregimena**

Deialdi honetan arautzen ez den guztiari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen Araudia aplikatuko dira. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legea aplikatu ahal izango da.

**19. Datu pertsonalen babesa**

Norberaren Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko xedez, Balmasedako Udalak jakitera ematen du eskatzaileen datu pertsonalak modu automatizatuan tratatu ahal izango direla eta Balmasedako Udalaren Informazio Sistemari sartu. Eskatzaileon datuak udalaren kudeaketa-zereginetan baino ez dira erabiliko, baina datuak laga edo beste herri-administrazio edo hirugarrenei komunikatu ahal izango zaizkie Norberaren Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa ezarritako inguruabarretan. Nolanahi ere, interesdunek datuetara sartzeko, kentzeko, zuzentzeko eta aurkartzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Balmasedako Udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bitartez.

Diru-laguntzen programetan parte hartuz gero, udalari emandako datu pertsonalak beste herri-administrazio batzuei edo Balmasedako Udalarekin lankidetzan diharduten erakundeek eman ahal izango zaizkie eta, halaber, zabalkunde orokorreko hedabideetan argitaratu ahal izango dira.

**20. Baliabide ekonomikoak**

2015eko ekitaldian, gehienez 25.000 euro banatuko dira eskatzaileen artean, eta zenbateko hori 2015 931 47101 Tokiko Ekonomia Dinamizatze Plan deritzon sailaren pentzura finantzatuko da, 2015eko ekitaldian onartu den Balmasedako Udalaren aurrekontuaren barruan.

**21. Azken xedapena**

*Lehenengoa:* Diru-laguntzen deialdia indarrean hasiko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengoan.

*Bigarrena:* Enpresa edo erakunde interesdunek eskabidea aurkeztuz gero, oinarrien edukia oso-osorik onartzeko konpromisoa hartzen dute.

Balmasedan, 2015eko otsailaren 10ean.—Alkatea, Álvaro Parros Betanzos

**16. Alteración de las condiciones de la subvención**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en las presentes bases para ser beneficiario/a de ésta. A estos efectos el Ayuntamiento de Balmaseda, dictará la oportuna resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

**17. Reintegro de las ayudas**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia de los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, cuando las entidades beneficiarias de las mismas incumpliesen las condiciones establecidas en la presente convocatoria, en la resolución de concesión y en las demás normas que resulten de aplicación; todo ello sin perjuicio de las acciones que procedan como consecuencia del incumplimiento.

Se considerarán supuestos de reintegro:

- Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
- Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- Incumplimiento de la obligación de justificación.
- Incumplimiento de las condiciones impuestas a los/as beneficiarios/as con motivo de la concesión.
- La negativa u obstrucción a las actuaciones de control.
- Que la subvención exceda del coste de la actividad desarrollada.

**18. Régimen supletorio**

En lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo; y la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**19. Protección de datos de carácter personal**

El Ayuntamiento de Balmaseda, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales de los solicitantes podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Balmaseda. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de la servicio de información y registro del Ayuntamiento.

La participación en el programa de ayudas, implica que los datos de carácter personal que se comuniquen podrán ser cedidos a Administraciones Públicas o entidades colaboradoras del Ayuntamiento de Balmaseda y publicados en los medios de difusión general.

**20. Recursos económicos**

La cantidad máxima a distribuir durante el ejercicio 2015 entre los solicitantes será de 25.000 euros ampliables que se financiara con cargo a la partida 2015 931 47101 Plan de Dinamización económica del presupuesto del Ayuntamiento de Balmaseda aprobado para el 2015.

**21. Disposición final**

*Primera:* La convocatoria de ayudas entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

*Segunda:* La presentación de la solicitud por parte de las empresas o entidades interesadas supone la plena aceptación de sus bases.

En Balmaseda, a 20 de febrero de 2015.—El Alcalde, Álvaro Parros Betanzos